

Topalekua

105 zk. 2021ko urtarrila

EHU/UPVko GIZARTE KONTSEILUA
CONSEJO SOCIAL DE LA UPV/EHU

GIZARTE KONTSEILUAR LANBIDEREN AZKEN LANERATZE-TXOSTENA AZTERTU ZUEN 2020ko ABENDUAREN 23ko OSOKO BILKURAN

UPV/EHUko 2016ko promozioiko ikasleen okupazio-tasa ehuneko laurogeita hamarrekoa da 2019 urtean

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleen azken laneratze-inkestak jasotzen duenez, promozio horretako % 84 ari dira lanean gaur egun.


2019ko amaieran egin zuen Lanbideek kontsulta, eta promozio horretako % 84k aurkitua zuen enplegua. Beste % 8 lanbide-irteera baten bila ari ziren, eta gainerako % 8a, azkenik, graduondoko bat edo beste karrera bat ikasten ari zen inkestaren garaian.

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen Gizarte Kontseiluak abenduaren 23an Bilbon egindako urteko azken osoko bilkuran aztertu ziren UPV/EHUko ikasle egresatuak laneratzeko azterlanaren 2019ko emaitzen aurrerapenari buruzko datu horiek eta beste batzuk.

2020ko saio hori izan zen Nekane Balluerka errektorearen azken saioa, kargua utzi aurretik.


Grafikoan, zehazki, 2016ko promozioiko ikasleen egungo lan-egoera ikus daiteke. Lanbideek 1997az geroztik egiten du inkesta urtero, UPV/EHUko Gizarte Kontseiluaren ekimezez. Titulazioa lortu eta hiru urtera egiten du inkesta hori, pentsatuz denbora hori nahikoa dela karrera bat sektore edo lanbide jakin batera bideratzeko. Euskal Enplegu Zerbitzuak 26.000 pertsona galdekatzen ditu urtero, Euskadiko ikasleen laneratzearen adierazleak ezagutze aldera.

EGUNGO LAN-EGOERA (2019ko ABENDUA)



- %71,99, besteren kontura lanean
- %7,18, langabezian (esperientziarekin)
- %6,74, beka, praktika edo kontratuarekin (doktorego aurrekoak edo ostekoak)
- %6,05, ikasketekin jarraitzen
- %4,70, norbere kontura lanean (edo prozesuan)
- %2,06, langabezian (esperientziarik gabe), lehendabiziko lanaren bila
- %0,34, kooperatiba-bazkide
- %0,26, baliaezintasuna, ezintasuna, erretiroa edo pentsioa
- %0,22, ez lanean, ez ikasten, ez bila (urte sabatikoa, ez-ez)
- %0,20, familiari laguntzen/familia-negozioan (ordainduta)
- %0,12, familia- eta zaintza-erantzukizun ordaindu gabeak
- %0,12, ordaindu GABEKO lana

BESTEREN KONTURAKO LANGILEETATIK, SOLDATADUN FINKOEN FINKOekin ALDERATURIK




- %60 Soldatadun finkoak
- %40 Soldatadun ez-finkoak

(1. orritik dator)

UPV/EHUREN 2016ko promozioari dagokion azken edizioan, zeinak hiru urte baitaramatza dagoeneko lan-merkatuan, alderdi hauek nabarmendu behar dira:


- Lanbidek 2019aren amaieran inkestatutako 2016ko promozioaren okupazio-tasa % 90ekoa zen, aurreko urtekoa baino txikixeagoa.
- Unibertsitate-prestakuntzari esker, batez beste soldata-maila hobekuntza eskuratu da.

HILEKO SOLDATA GARBIA 14 ORDAINSARITAN (LANDUNAK), JAKINTZA-ALORRAREN ARABERA



- Lanaldi osoan lan egiten dutenen batez besteko soldata 1.565 euro garbi da hilean, 14 ordainsaritan, eta 860 eurokoa lanaldi murriztuan. Zehazki, hauek dira lanaldi osoko batez besteko soldata garbiak, jakintza-arloen arabera, handienetik txikienera: Osasun Zientziak (1.745 euro), Teknikoak (1.647 euro), Gizarte Zientziak (1.500 euro), Giza Zientziak (1.493 euro), Ekonomiko-juridikoak (1.427 euro) eta Zientzia Esperimentalak (1.315 euro).
- Nahiz eta laneratzean hainbat faktore pertsonalek eta sozialek esku hartzen duten, oso esanguratsua da alderdi akademikoak direla alderdirik garrantzitsuena, egresatuen esanetan. Aldagai horren barruan, garrantzi berezia du ikasiriko titulazio zehatzak, eta, harekin batera, nabarmentzen da garrantzitsuak direla unibertsitate-praktikak, graduondoko espezializazioa eta atzerriko hizkuntzetan eskuratutako gaitasunak. Hori guztia aintzat hartuta, ondorioztatzen da unibertsitate-prestakuntza dela funtsezko elementua goi-kalifikaziozko lanbide-ardurak eskuratu ahal izateko.

UNIBERTSITATE-TITULUA ESKATZEN DUEN ENPLEGUAREN EHUNEKOA (LANDUNAK)



- Unibertsitate-titulazioa eskatzen duten pertsona landunen batez besteko enplegu-ehunekoa % 81 da. Diziplinen arabera, handienetik txikienera, Osasun Zientziak ageri dira (% 94), ondoren Teknikoak (% 87), Esperimentalak (% 85), Ekonomiko-juridikoak (% 80), Gizarte Zientziak (% 73) eta Giza Zientziak (% 66).
- 2016ko promozioan lana lortzeko bide nagusia ingurune soziala eta profesionala da, % 24,7ko kuotarekin. Ondoren, eskaintza zehatzari emandako erantzunak (% 19,7), oposizioak/lan-poltsak (% 17,2), CVa/alta ematea enplegu-zerbitzuan (% 13,7), unibertsitate-ingurunea (% 11,4), autoenplegua/ekintzaileak (% 4,5), prestakuntza osagarria (% 3,5), unibertsitatez kanpoko praktikak/bekak (% 3) eta beste batzuk (% 2,4).
- Hizkuntzek –batez ere euskara eta ingelesa– erabilera-ehuneko aldakorrak baina garrantzitsuak ageri dituzte jakintza-alor desberdinetako lanekin lotuta.

Gehigarriko ordainsari osagarriak

2020ko azken saioan, UPV/EHUko Gizarte Kontseiluak urte hartako deialdiari zegozkion C1 eta C2 mailetako gehigarriko ordainsari osagarriak esleitu zituen.

Azkenik, osoko bilkurak gastu arruntaren hainbat aurrekontu-aldaketa onetsi zituen, irakaskuntzako ekipamendua eta bitarteko informatikoak eskuratzera bideratutako inbertsioetarako.

KATALUNIA ETA NAFARROA DAUDE AUTONOMIA-ERKIDEGOETATIK LEHEN ETA BIGARREN POSTUAN, HURRENEZ HURREN

EAE hirugarren postuan dago unibertsitateen errendimenduari buruzko CYD-en azken rankingean

Zazpigarren edizio honetan, 76 unibertsitatek parte hartu dute (48 publikok eta 28 pribatuk), graduko irakaskuntza ematen duten 81 erakundeen % 94 ordezkatuz.


Espainiako unibertsitate-sistema ebaluatzeko eta gardenagoa izateko tresna bat prestatzea xede harturik, Conocimiento y Desarrollo Fundazioak CYD zerrendaren lehendabiziko edizioa antolatu zuen 2014an.

Fruitu instituzionalak gaineratzen dira, autonomia-erkidegoetan eskuratu diren emaitzak lortzeko, eta, hala, errendimendu erlatiboaren adierazleetan gehien nabarmentzen direnak zeintzuk diren jakiteko. Zerrendaren azken edizio honetan, autonomia-erkidego hauek eskuratu dute puntuaziorik handiena, ordena

honetan: Katalunia (28), Nafarroa (27), Euskal Autonomia Erkidegoa (25), Asturias (16) eta Madril (15). Oro har, aurreko edizioetako posizio berberak izan dira.

Honako bost adierazle hauek hartzen dira kontuan: irakaskuntza eta ikaskuntza, ikerketa, jakintzaren transferentzia, nazioarteko orientazioa, eta eskualde-garapenari eginko ekarpena. Euskadi hirugarren postuan dago, Kataluniaren eta Nafarroaren atzetik: 7 puntu ditu lehenengoan, 5 ikerketan eta ezagutzaren transferentzian, eta 4 aurretik aipatutako azkeneko bietan (ikus koadroa).

UNIBERTSITATEEN ERRENDIMENDUAREN ARABERA NABARMENTZEN DIREN AUTONOMIA-ERKIDEGOAK



	Irakaskuntza eta ikaskuntza	Ikerketa	Jakintzaren transferentzia	Nazioarteko orientazioa	Eskualde garapena	Gutira
Katalunia	7	7	6	2	6	28
Nafarroako Foru Erkidegoa	8	7	6	-	6	27
Euskal Herria	7	5	5	4	4	25
Asturiasko Printzerria	3	4	4	4	1	16
Madrilgo Erkidegoa	4	1	3	2	5	15
Kantabria	1	7	2	1	2	13
Valentziako Erkidegoa	3	4	4	-	2	13
Aragoi	4	1	4	1	1	11
Gaztela eta Leon	5	-	2	2	2	11
Galizia	1	4	3	1	1	10
Baleiar Uharteak	-	4	3	-	2	9
Errioxa	4	2	1	-	-	7
Andaluzia	-	2	-	3	1	6
Kanariak	1	1	-	3	1	6
Extremadura	1	1	1	2	1	6
Murtziako eskualdea	2	1	-	1	1	5
Gaztela-Mantxa	-	1	2	-	1	4

Iturria: Ranking CYD

KONPAINIEN EHUNENKO ZAZPIK BAKARRIK AURREIKUSTEN DU LANGILE-TALDEA AREAGOTZEA 2021eko LEHEN HIRUHILEKOAN


Zuzendariek kontratazio-asmo txikia ageri dute aurten

ENPLEGU-PROIEKZIOA ESPAINIAN 2021eko LEHEN HIRUHILEKOAN

	Hazkunda %	Murrizketa %	Aldaketarik gabe %	Ez daki %	Enplegu garbiaren proiektzioa %	Emaitzak urtarodoikuntzarekin %
2021eko lehen hiruhilekoa	7	11	73	9	-4	-1
2020ko laugarren hiruhilekoa	6	11	73	10	-5	-3
2020ko hirugarren hiruhilekoa	6	16	63	15	-10	-12
2020ko bigarren hiruhilekoa	12	4	77	7	8	6
2020ko lehen hiruhilekoa	5	4	86	5	2	5

Iturria: ManpowerGroup

ESPAINIAKO ZUZENDARIEN KONTRATAZIO-AURREIKUSPENAK



- % 73 Batere aldaketarik ez beren erakundeetan
- % 7 Kontratazioa areagotzea
- % 11 Enplegatua kopurua murriztea
- % 9 Ez daki/ez du erantzun

Iturria: ManpowerGroup

ManpowerGroup etxeak 2021eko lehen hiruhilekorako eginko *Enplegu Proiektzioari buruzko Azterketak* dioenez, Espainiako zuzendariek asmo gutxi dute langileak kontratatuzeko. Enplegu garbiaren proiektzioa -% 4koa da. COVID-19ak ekarriko egoeraren ondotik. Zuzendarien % 7k soilik aurreikusten dute langile-taldek gora egitea; % 11k uste dute murriztu egingo direla eta % 73k ez dute aurreikusten aldaketarik beren erakundeetako langile-taldeetan.

Urtaroko doikuntzak aplikatu ondoren, proiektzioa -% 1ekoa da. Kontratazio-aurreikuspenak ehuneko hiru puntu hobetzen dira aurreko hiruhilekoarekin alderatuz gero, baina sei puntu jaisten dira duela urtebeteko epe berekoak erreferentziaz hartuz gero. ManpowerGroup etxeak eginko ikerketa horretarako, Espainiako 707 zuzendariz osaturiko lagin adierazgarri bat elkarrizketatu da.

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO INDUSTRIA INGENIARITZA, BERE ESPEZIALITATEAN GEHIEN ESKATUTAKO

EHU enpresa-sareak ondoen balioetsitako Espainiako lehendabiziko 10 unibertsitateen artean dago

Euskal Herriko Unibertsitatea Everis Fundazioak egindako Unibertsitatea-Enpresa III. Rankingaren buruan ageri da. Posizio horiek lortzeko, inkesta bat egiten zaie Espainiako enpresei bost jakintza-arlotako titulu berrien enplegarritasunari buruz.

Giza Zientzien eta Gizarte Zientzien arloan, UPV/EHU bosgarren postuan dago enpresarietako ondoen balioetsitako unibertsitateen artean (7,38 puntu); Informatikan, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologietan, zortzigarren tokian (7,38); Enpresa Administrazioan, Ekonomia Zientzietan eta Zuzenbidean, zazpigarrenean (7,49); Osasun eta Ongizate alorrean, laugarren postuan (7,96) eta Zientzia eta Ingeniaritzan, azkenik, seigarren tokian (7,69).

Bi hauek dira Espainian kontratazio kopuru handiena duten titulazioak: Enpresen Administrazioa, Kudeaketa eta Zuzendaritza (% 15) eta Industria Ingeniaritza (% 11). Atzetik dituzte Informatika Ingeniaritza (% 7), Zuzenbidea (% 4), Ekonomia (% 4), Turismoa (% 4), Ingeniaritza Mekanikoa (% 3), Erizaintza (% 3), Nekazaritzako eta Elikagaien Nekazaritzako Ingeniaritza (% 2) eta Lehen

Hezkuntza (% 2). Aipaturiko hamar titulazioetatik lehenengoan, enplegu-emaleek Deustuko Unibertsitatekoa eskatu dute gehien, 8,26 punturekin. Ondoren Sevillako Unibertsitatekoa (8,20) eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoakoa (7,83) daude. UPV/EHU zazpigarren postuan dago, 7,66 punturekin.

UPV/EHU ageri da Industria Ingeniaritzako titulazioaren rankingaren buruan (7,98 puntu), zeina bosgarren postuan baitzegoen Everis Fundazioaren argitalpen honen aurreko edizioan. Bigarren eta hirugarren postuan Kataluniako eta Madrilgo Unibertsitate Politeknikoak ageri dira, 7,74 eta 7,66 punturekin, hurrenez hurren.

Beheko taulan ikus daitekeen bezala, ebaluatutako egresatuen % 81,7k karrera ikasi duten autonomia-erkidego berean lan egiten dute. UPV/EHUren kasuan, % 92,8ra igotzen da ehuneko hori.

UPV/EHU-ren INDUSTRIA INGENIARITZA, BOSGARREN POSIZIOTIK LEHENDABIZIKORA

INDUSTRIA INGENIARITZA	GAITASUNAK ETA PREMIAR EGOKITZEA
Euskal Herriko Unibertsitatea	7,98
Kataluniako Unibertsitate Politeknikoa	7,74
Madrilgo Unibertsitate Politeknikoa	7,66
Valentziako Unibertsitate Politeknikoa	7,51
Madrilgo Carlos III Unibertsitatea	7,43
Vigoko Unibertsitatea	7,20
Zaragozako Unibertsitatea	7,10
Oviedoko Unibertsitatea	6,82

IKASI DUTEN AUTONOMIA-ERKIDEGO BEREAN LAN EGITEN DUTEN EGRESATU EBALUATUEN EHUNEKOA

Unibertsitatea	Unibertsitatearen autonomia-erkidego berean kokaturiko enpresek egindako ebaluazioen ehunekoa	Unibertsitatea	Unibertsitatearen autonomia-erkidego berean kokaturiko enpresek egindako ebaluazioen ehunekoa
Kordobako Unibertsitatea	% 95,4	Vigoko Unibertsitatea	% 85,1
Las Palmasko Uniberts. (Kanaria Handia)	% 95,2	Alacanteko Unibertsitatea	% 83,8
Rovira i Virgili Unibertsitatea	% 94,6	Cádizko Unibertsitatea	% 81,1
Gironako Unibertsitatea	% 94,4	Alcaláko Unibertsitatea	% 81,0
Malagako Unibertsitatea	% 93,5	Murtziako Unibertsitatea	% 79,2
Euskal Herriko Unibertsitatea	% 92,8	Madrilgo Carlos III Unibertsitatea	% 79,2
Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa	% 91,9	Valentziako Unibertsitatea	% 78,3
Coruñako Unibertsitatea	% 90,8	Extremadurako Unibertsitatea	% 78,2
Bartzelonako Unibertsitatea	% 90,6	Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea	% 78,0
Lleidako Unibertsitatea	% 90,3	Zaragozako Unibertsitatea	% 75,8
Pompeu Fabra Unibertsitatea	% 89,3	Burgosko Unibertsitatea	% 74,7
La Lagunako Unibertsitatea	% 88,4	Madrilgo Unibertsitate Politeknikoa	% 74,4
Deustuko Unibertsitatea	% 88,2	Gaztela-Mantxako Unibertsitatea	% 74,2
Almeriako Unibertsitatea	% 88,0	Valladolideko Unibertsitatea	% 69,5
Sevillako Unibertsitatea	% 87,9	Oviedoko Unibertsitatea	% 68,6
Santiagoko Unibertsitatea	% 87,6	Granadako Unibertsitatea	% 67,9
Madrilgo Unibertsitate Autonomoa	% 87,1	Leongo Unibertsitatea	% 67,3
Kataluniako Unibertsitate Politeknikoa	% 86,6	Kantabriako Unibertsitatea	% 60,3
Valentziako Unibertsitate Politeknikoa	% 86,4	Nafarroako Unibertsitatea	51,7%
Juan Carlos Erregea Unibertsitatea	% 85,9	Salamancako Unibertsitatea	50,7%
Balear Uharteetako Unibertsitatea	% 85,9		